



Araba Euskaraz-ek badu marka eta datozen urteetarako erreferentzia moduko edizioa: iragan igandean Laudion ospatu zena. Dirua, inoiz baino gehiago; jendea, beste horrenbeste; giroa, jatorra eta alaitsua; zirkuitua, ederra benetan eta eguraldia, udakoa oso. Hori guztia dela eta, 'Etorkizuna euskaraz' eta 'Ikastola bizirik' leloak ezin sendotuago atera dira Aiarako festatik.

Arabak badu marka

LUIS KARLOS GARCIA / LAUDIO

Araba Euskaraz-en hamahirugarren edizioak ez dio zenbaki malapartatu horren patuari inolako jaramonik egin nahi izan eta ia elementu guztiak alde izan zituen iragan igandean Laudion. Antolakuntzak orain arte egin-dako behin-behineko balorazioetan «benetako edizio arrakastatsua» izan dela aditzera eman du, baina kontua da oraingoan ez zaiola batere arrazoirik falta.

Araba Euskaraz 1993 ez zen igandean goizeko 10etan hasi. Araba Euskaraz 1993k joan zen urteko azkeneko hilabeteetan izan zuen hastapena, antolakuntza batzordeak herenegun muntatu zenaren lehen pausoak eman zituenean. Hala adierazten zuten antolatzaile eta laguntzaile askok igandean izerdi patsetan zeuden bitartean.

Baina Euskal Herrian egiten diren jai hauetan gertatzen den bezala, festa larunbat gauek zetozen. Antolakuntzak pare bat kanpaleku prestatu zituen, eta bete egin ziren, Laudio eta inguruetako hotelak eta ere bai. Bezpera gogorra oso gertatu zen, kasu batzuetan jaiak ibilbidea has-teko ordu gutxi batzuk falta ziren arte iraun zuen eta jakin egin da zenbaitzuek 'makina' musika geratu gabe dantzatu zutela.

Sasoi hobean zeuden, bestalde, goizeko 10etan Herriko plazan ibilbideari ekiteko prest ziren agintari politikoak. Buruan, behar den bezala, Alberto Ansola diputatu nagusia. Hortik aurrera, edo atzera, alderdi abertzaleetako ordezkari askotxo, baita Audio, Amurrio, Aiara eta Okondoko udaletakoak ere eta Eusko Jaur-

laritzak ikastolen aldeko festa hauetarako daukan emisari bikoterik onena, Mari Karmen Garmendia eta Jose Mari Zeberio Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko arduradunak, hain zuzen. Gasteizko Hezkuntza Sailak, sozialistak daudenetik ohi duenez, ez zuen inortxi bidali Laudiora. Igande aurreko egunetan Fernando Buesa kontseilariaren sailatik esan ziguten hobe zela festaren eguna itxarotea ea baten bat agertzen zen. Hori itxaropena!

Yolanda eta Irati umek zinta moztu eta egunari hasiera eman zioten. Hasiera ematea nolabaitetako baino ez zen izan, atzerapen apur batez egin zelako ekitaldia, baina harrezkero gertatu zena kontatzea oso zaila da, 50.000 lagunek baino gehiagok zirkuituak, Laudio eta Araba Euskaraz-ek gainezka egitea eragin zutelako minutu apur batzuetan.

50.000 horietariko bakoitzak gauza bat egin zuen. Batzuek Lamuzako parkearen lasaitasuna nahiago zuten bitartean, hainbatek eskeletoa mugitu zuten trikitixa, rock, saltsa eta abarreko musikaz. Denetarik, baina hori bai, 50.000 horietariko guztiek bat egin zuten tabernetara hurbildu eta edariak hartzean. 25.000 litro edari zerbitu zituzten eta aurrikuspenek gainezka egin zuten alde honetatik ere, iaz baino % 40 gehiago kontsumitu zelako edari eta janariei dagokienez.

Garraioei buruzko arloan ere gogor aritu behar izan zuen antolakuntzak. Batetik, Bilbotik joan behar zuen jendearentzat eskaini zituzten tren zerbitzu bereziak lan ikaragarria egin zuen eta 10.000 lagun inguruk erabili



Goizean goizetik gainezka egin zuen Laudion prestatu zuten zirkuituak.

JONTXU

zuten. Kotxez hurbildu zirenek, bestalde, aparkalekuak bete egin zituzten.

Guztira 1.500 laguntzailek lanean jardun zuten Araba Euskaraz-en, baina gehiago ziren jaiarekin zerikusiren bat edo beste izan zutenak. Laudion izan ziren pertsona guzti hauen lana ondotoxo sumatu zen eta horregatik jaiaren amaierako poza.

Antolatzaileak pozik egoteko moduko datuak dira, azkenik, 20 milioi pezeta inguru jaso zituztela. Jai hauek helburu ekonomiko garrantzitsua dutela argi dago eta baita jendeak badakiela ikastolek munta handiko proiektuak dituztela, diruz hornitu behar direnak. Horrexegatik edo, ibilbidean lagun batek bota zuen «Ondo pasau eta gutxi gastau!» esaldiari aldameneko batek erantzun zuena: «Bai, ondo pasau eta asko gastau!».

«Jai beharrezkoa»

L.K.G. / LAUDIO

Agintari politikoak bazter batetik bestera ibili ziren. Zirkuituaren hasiera zela edo Laudio ikastolan Ikastolen Elkarteak egin zuen hartze ofiziala zela, nahikoa lan izan zuten, eta hori ibilbide nekeza egitean egin zituzten ahaleginak kontuan hartu gabe. Baina hitz egin zuten eta bat egin ere bai ikastolen aldeko jai hauek «beharrezkoak» direla aipatzean, juxtu Hezkuntza Sailako agintaritzatik ikastolak dagoeneko historiaren baitan besterik ez direla esaten ari den garaian.

Alberto Ansola diputatu nagusiak, adibidez, «beharrezkotasun» jo zuen gaztelania Araban normalizaturik dagoela eta euskara oraindik normalizatzeko dagoen hizkuntza dela aintzat harturik. «Ildo horretatik, Araba Euskaraz gure herrialdearen beharrezko hizkuntz normalizazioarako beste pauso bat da», esan zuen Ansolak. Beste alde batetik, Mari Karmen Garmendia Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko buruak maiatzaren 25eko erabakiaren arabera jardun beharra baina baita «bidean aurrera jarraitu beharra» ere badagoela aipatu zuen.